EUSKAL MUSEOA BERRITZEKO PROIEKTU MUSEOGRAFIKO ARKITEKTONIKOA (ETA OBRA ZUZENDARITZA TEKNIKOA) KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

A ATALA: EGINGO DIREN LANEN **DEFINIZIOA**

Hauek dira publizitaterik gabeko prozedura negoziatu honetan egingo diren lanak:

Euskal Museoko egoitzaren arkitektura berritzeko eta egokitzeko **proiektu** museografikoa eta obren zuzendaritza fakultatiboa egitea, eta bermealdian babestea. Bi eraikinek osatzen dute museoa: A eraikina (*Euskal Museoaren* gaur egungo egoitza, Unamuno plazako 4. zenbakian), eta B eraikina (Gurutze kaleko 10. zenbakian). Halaber, *Euskal Museoan* goi-mailako kultura-ekipamenduz osaturiko eremuak kokatu nahi dira, ezaugarri hauetako proiektu batek eskatutako zehaztasun, sakontasun eta zabaltasun mailarekin. Lanak epe batean bakarrik egin beharko dira. Halaber, behin aurkeztuko zaizkio Bilbao Bizkaia Museoak erakundeari (BBM aurrerantzean), aztertu eta onar ditzan.

B ATALA: EGINGO DIREN LAN GUZTIETARAKO **BALDINTZA TEKNIKO OROKORRAK**

1. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu honen xede diren lan guztiak BBMk zuzendu, jarraitu eta kontrolatuko ditu, hasieratik amaierara arte, eta BBM eskumen horietaz baliatu ahalko da, bai idatziz, bai ahoz.

2. BBM enpresa adjudikaziodunarekin lankidetzan arituko da, eta lanetan zer printzipio, jarduketa-ildo, jarraibide eta irizpide erabili behar dituen jakinaraziko dio enpresa adjudikaziodunari. Bestalde, enpresa adjudikaziodunarekin egindako bilerak zer maiztasunarekin egingo diren erabakiko du, baita zer gai, zer eduki eta zer behar jorratuko dituen ere. BBMk enpresa adjudikaziodunaren iradokizunak eta proposamenak aztertuko ditu, eta enpresa adjudikaziodunaren ikuskapen-funtzioak egingo ditu.

3. Aurretik adierazi den moduan, enpresa adjudikazioduna lankidetzan arituko da BBMrekin. Horrela, BBMk ezarritako printzipio, jarduketa-ildo, jarraibide eta irizpideei jarraiki egingo ditu publizitaterik gabeko prozedura negoziatu honetan jasotzen diren lan guztiak. BBMk deitutako bilera guztietan parte hartuko du, eta egokitzat jotzen dituen iradokizun eta proposamen guztiak egingo dizkio BBMri, betiere lizitazioan barne hartzen diren lanen barruan badaude. Bestalde, BBMren zuzendaritza eta jarraipena onartuko du.

4. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu honetan barne hartzen diren lanek, BBMk idatzi eta onartutako Euskal Museoaren Plan museologikoarekin bat etorri beharko dute, oro har, eta kapitulu edo atal guztietan (Planaren dokumentua enpresa lizitatzaileari emango

zaio). Hau da, enpresa adjudikaziodunaren iradokizunak, planteamenduak eta lanak ezin dira izan BBMk egin eta onartutako Plan museologikoan jasotzen diren oinarri, prozedura eta irizpideen aurkakoak. Bestalde, haien azpian dagoen museoaren filosofiarekin ere etorri beharko dute. Azken batean, proiektu museologikoarekin bat etortzeaz gain, haren balioa nabarmendu ere egin beharko dute.

5. BBMk erabakiko du zer espazio eta eremu erabiliko dituen museoak bere jardueraraako eremu gisa (honela banatuta: eremu publikoa, bildumarik gabe; eremu pribatua, bildumarekin eta bildumarik gabe, eta eremu mistoak), eta zein erabiliko dituen erakusketa erdi-iraunkorretarako (publikoa, bildumarekin), hori guztia Plan museologikoarekin bat etorriz, Interpretazio Baliabideen Planean (IBP aurrerantzean) eta bere eranskinetan zehazten den moduan, Oinarrizko Programa Funtzionalean (OPF aurrerantzean) zehazkiago. Hala ere, BBMk dokumentu horietan jasotzen ez diren edo haiek aldatzea ekartzen duten beste aukera batzuk eska ditzake.

6. BBMk museoaren jardueraren berezko espazioak nola banatuko diren eta zer museo-erabilera eman dien erabakiko du. Horrela, BBMk zer espazio erabili erabakiko du, besteak beste harrerarako, erakusketa erdi-iraunkorrerako, denboraldi baterako erakusketetarako, balio anitzeko aretorako, ezagutza-eremurako, auditoriumerako, biltegietarako (bisita daitezkeenak eta ez), bulegoetarako, eta oro har, museoaren beharrak asetzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztietarako, betiere Plan museologikoaren IBPn ezarritako irizpideei jarraituz. Enpresa adjudikaziodunak modu koherentean eta plan horrekin bat etorriz zehaztuko ditu museoaren eguneroko jardueren ibilbide funtzionalak. Halaber, enpresa adjudikaziodunak, klaustroaren fatxada berritzeko tratamendua txertatzeko moduari buruzko informazio zehatza emango du. (A eraikina).

7. Oro har, BBMk bisitariari publikoari irekitako eremuetan bidaliko zaizkion mezuak zehaztuko ditu (*Euskal Museoaren* Plan museologikoaren IBPn jasotzen direnak). Are gehiago, mezu bat igorriko duten espazio eta eremu guztietan, enpresa adjudikaziodunak, nahi den mezua igortzea beharrezkoak diren istorioen gidoiak idazteko emandako informazio teknikoa (egiaztatutako laburpenak) gainbegiratuko du BBMk. Horrenbestez, BBMk harreran, erakusketa erdi-iraunkorrean, denboraldi baterako erakusketetan eta tailer didaktikoetan igorri nahi diren ideia eta mezu nagusiak igortzeko erabilitako istorioen literatura-gidoien behin betiko idazketa (proiektua gauzatzeko fasean) koordinatuko du.

8. *Euskal Museoaren* erakusketa guztietarako beharrezkoa den ikonografia bilatzeko eta publikoari irekitako aretoak girotzeko bilaketa-lana enpresa adjudikaziodunak hartuko du bere gain, baita kostua ere, Plan museologikoaren IBPk proposatutakoarekin bat. BBMk eskatuta, enpresa adjudikaziodunak ikonografia zehatza proposatu beharko du.

9. BBMk museoko panel, kartel, elementu eta ikus-entzunezko materialen behin betiko idazketa koordinatuko du (proiektua gauzatzeko fasean). Halaber, BBMk museoak argitaratutako liburuxken testuen behin betiko idazketa gainbegiratuko du.

10. BBMk, enpresa adjudikaziodunaren proposamenean oinarrituz, Euskal Museoaren Plan museologikoarekin bat badator, museoko eremu guztietan (altzariak, argiak, baliabide zientifiko eta teknikoak, giroa, euskarri museografikoak, elementu museografiko osagarriak, panelak, apalak, armairuak...) gutxienez zer elementu jarriko diren erabakiko du.

Halaber, enpresa adjudikaziodunak museoaren planteamendu orokorra eta erakusketa erdi-iraunkorraren ibilbide nagusiarena proposatuko ditu, betiere aipatutako IBPrekin bat etorriz. Enpresa adjudikaziodunak BBMrenak ez diren beste ibilbide gehigarri batzuk ere proposatuko ditu.

11. BBMk erabakiko du zein izango diren publikoari irekitako aretoetan aurkeztutako jatorrizko elementu, objektu eta piezak, enpresa adjudikaziodunaren proposamenaren arabera, *Euskal Museoaren* Plan Museologikoarekin bat etorriz.

12. Publikoari irekitako aretoetan aurkeztutako jatorrizko elementu, objektu edo piezek baldintza bereziren bat badute kontserbatzeko edo aurkezteko, BBMk enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko dio.

13. Enpresa adjudikaziodunaren proposamenak, publikoari irekitako areto edo eremu irekietan aurkeztutako elementuak espazioan banatzeko planteamendu bat garatuko du (*Euskal Museoaren* Plan museologikoaren IBPrekin bat datorrena).

14. Definizio-prozesuan, zenbait aukera aurkitu ahalko dira agiri honetan adierazitako baldintzatzaileak ebazteko, IPBn, Plan museologikoan eta OPFn. Aukera horiek, arlo hauetan egon daitezke: arkitektura, eremuen banaketa, ibilbideak, jartzeko elementu zehatzak (altzariak, agiriak, baliabide zientifiko eta teknikoak, giroa, euskarri museografikoak, elementu museografiko osagarriak, panelak, apalak, armairuak...), eta aurkezteko jatorrizko elementu, objektu eta piezak. Aukera horien aurrean, enpresa adjudikaziodunak haietako bakoitzaren nahikoa deskribapena eman beharko dio BBMri (planoak eta irudiak, beharrezkoak diren infografiak barne), dagokion balorazio ekonomikoarekin eta epearen balorazioarekin. Horrez gain, kasu bakoitzean garrantzitsuak diren ondorioen berri ere emango du.

15. Beharrezkotzat jotzen badu, kanpoko aholkularien laguntza eskatu eta jaso ahalko du BBMk, eta hori egitea erabakitzen badu, enpresa adjudikaziodunak kanpoko aholkularitza hori onartu beharko du.

16. Enpresa adjudikaziodunak kontuan hartu beharko du, oro har, museoko erakusketak komunikazio-jardueratzat hartu eta diseinatuko direla.

17. Baldintza teknikoen agiri honetan euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen artean kontraesanik edo xehetasun desberdintasunik gertatuko balitz, euskarazkoa lehenetsiko da, zuzen dagoen bertsio gisa. Horrez gain, beharrezkoa bada, BBMk baldintza teknikoen agiria interpretatu beharko du.

18. Beharrezkotzat jotzen badu, prozedura ireki honetan xede diren lan guztietan elebitasuna aplikatzea ezarriko duten irizpideak emango dizkio enpresa adjudikaziodunari.

19. Enpresa adjudikaziodunak Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen erabilera normalizatzeko dituen hizkuntza irizpide orokorrak bete beharko ditu kontratuan jasotzen diren lan guztietan eta BBMrekin izandako komunikazioan, Administrazio-klausula berezien agiriaren azalean (AKBA) zehaztutako hizkuntza-klausulan ezartzen den moduan.

20. Enpresa adjudikaziodunak berak, zerbitzuaren barruan euskaraz sortutako testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatuko du. Egokiak ez badira, enpresak bere kontura zuzen ditzala eskatu zaio.

21. **Berdintasunaren inguruko klausula**. Ez da hizkuntza sexistarik erabiliko, ez eta emakumea baztertzen edo estereotipo sexistak sustatzen dituzten irudi edo ikonografiarik ere, inolako dokumentu, publizitate , irudi edo materialetan. Halaber, emakumearen irudiarekin lotutako balio hauek sustatuko dira: berdintasuna, parekotasun adierazgarria, aniztasuna, erantzukizun partekatua eta rol eta genero-identitateen aniztasuna.

Halaber, kontratua indarrean dagoen bitartean, hizkuntza ez sexista erabili beharko du enpresa adjudikaziodunak behin betiko idatzizko dokumentuetan eta dokumentu digitaletan, eta pertsonei buruz sortzen den edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereizi beharko dira, errespetatu beharko diren printzipio orokorrak adierazten dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 2.3 artikuluaren, eta emakume eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren babesean.

22. Museoak irisgarritasun-baldintza egokiak eskaini beharko ditu erabiltzaile eta bisitari guztientzat (museoen esparruan COVID19aren osteko etapa baterako ezarritako berariazko estandar eta gomendioak kontuan hartuz). Hori dela eta , maila arkitektonikoan jarduketa ebatzi beharko da, irisgarritasun-baldintzak bermatuz, aipatutako araudiarekin bat etorriz. Erakusketa erdi-iraunkorrak behar bereziak dituzten bisitariekin, ikusmen- edo entzumen-desgaitasun murriztua duten pertsonekin bereziki, zein beren mugikortasun urrituarengan ondorioz dituzten pertsonekin izandako komunikazioa bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak izango ditu.

23. Lehiaketaren agirian adierazten den moduan, diziplina anitzeko talde bat eratu beharko da. Gutxienez, profil profesional hauek dituzten pertsonez osatuta egongo da:

a. 1 persona en la coordinación de equipo y responsable de proyecto, arquitecta/o o titulación equivalente. Será el/la director/a de obra, e interlocutor/a directo/a con la entidad contratante. Las facultades del responsable del proyecto serán ejercidas por el director facultativo, conforme a lo dispuesto en los artículos 237 a 246 de la LCSP. En el caso de personas físicas, esta persona deberá ser el propio licitador.
b. 1 persona con titulación de grado en arte, historia, historia del arte, y posgrados en museología o similar
c. 1 persona con titulación de grado en conservación y restauración de bienes culturales y posgrados en museología o similar
d. 1 persona responsable de la dirección de ejecución de obra, arquitecto/a técnica/o o titulación equivalente
e. 1 persona responsable de seguridad y salud, técnico superior o medio, con titulación apta para asumir la coordinación de seguridad y salud en los trabajos de proyecto y obra.
f. En su caso, otras personas especialistas con la titulación habilitante adecuada para proyectos de instalaciones que así lo requieran, en función de la complejidad de la obra objeto del concurso.

a. 1 pertsona, taldearen koordinazioan eta proiektu-burua, arkitektoa edo horren baliokidea den titulua. Proiektu-buruaren eskumenak zuzendari fakultatiboak baliatuko ditu, SPKLren 237-246. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Pertsona fisikoen kasuan, lizitatzaile bera izan beharko da.
b. 1 pertsona, arte, historia, artearen historiako graduarekin, eta museologiako graduondokoarekin edo horren baliokidearekin.
c. 1 pertsona, kultura ondareen kontserbazio eta zaharberritzeari buruzko graduarekin, eta museologiako graduondokoarekin edo horren baliokidearekin.
d. 1 pertsona, obrako lanen zuzendaria, arkitekto teknikoa edo horren baliokidea den tituluarekin.
e. 1 pertsona, segurtasun eta osasun arduraduna, goi- edo erdi-mailako teknikaria, proiektu eta obrako lanetan segurtasun- eta osasun-koordinazio bere gain hartzeko titulazioarekin.

f. Hala badagokio, horrela eskatzen duten instalazioen proiektuetarako egokia den titulua duten bestelako espezialistak, lehiaketaren xede den obraren konplexutasunaren arabera.

Enpresak profil profesional bakoitzerako pertsonak proposatu beharko ditu, lizitazioan eskatzen den kaudimen teknikoa betetzen duten kontuan hartuz. BBMk kaudimen tekniko horrekin ez badator, proposamena ez onartzeko eskubidea du. Kasu horretan, enpresak koherenteak diren beste aukera batzuk proposatu beharko ditu.

24. Taldearen barruan erdi-mailako edo hortik gorako titulua duen pertsona bat proposatu beharko da. Horrek, lanaldi erdian lan egingo du, obran zuzenean, zuzendaritza fakultatiboaren, eraikitzailearen eta Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen arteko komunikazio egokia bermatzeko.

25. Obra-zuzendaritza fasean proiektuaren taldeak jarraituko duela bermatu beharko da. Proiektu-fasean nahiz obra-zuzendaritza fasean egiten diren jarraipen-bileretara talde osoak bertaratu beharko du. Berme-fasean aurrez aurreko taldea murriztu ahalko da, hala ere, taldeko pertsona guztiek prest jarraitu beharko dute eskaerarako.

26. BBMk proiektua agiri bereizietan idaztea eska dezake obren eta ekipamenduaren lizitaziorako, lote desberdinetan, edo baita lizitazio desberdinetan ere.

C ATALA: BERARIAZKO BALDINTZA TEKNIKOAK **ARKITEKTURA ETA ESPAZIO EGOKITZAPEN** LANETARAKO

1. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatu honen xede den proiektuak (egokitzapen arkitektonikoari dagokionez: **Proiektu arkitektonikoa**), eraikinaren ezaugarriak hobetzeko beharrezkoak eta egokiak diren obrak ezarriko ditu (kultura-intereseko ondasuna dena kontuan hartuz), proposatutako proiektu museografikoan gauzatzeko helburuarekin. Obra horiek, geroko fasean egingo dira, kontratu honen enpresa adjudikaziodunari dagokion zuzendaritza fakultatiboaz baliatuz.

2. Besteak beste, hauek izango dira helburuak: isolatze- eta klimatizazio-baldintzak hobetzea, lapurreten aurkako neurriak handitzea eta eraikinaren irisgarritasuna hobetzea. Bestalde, *Euskal Museoaren* A eta B eraikinak lotzen dituen tarterako batik bat, eremu horretarako eta Plan Museologikoaren IPBn proposatutako baldintza museografikoetarako egokia den elementu arkitektoniko bat planteatuko da. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu arkitektonikoak aurretik aipatutakoa zehazki nola egingo den azaldu beharko du. Enpresa adjudikaziodunak klaustroko fatxada zaharberritzeari buruzko lanak jaso beharko ditu. Lan horiek, BBMk enpresa lizitatzaileari emango dion txosten teknikoaren jarraibideen arabera egingo dira.

3. Horrenbestez, enpresa adjudikaziodunak egindako proiektu museografikoak, proiektu arkitektonikoan proposatutako obra eta esku-hartze horiek amaitutakoan, eraikinaren egoera zein den kontuan hartu beharko du. Beraz, enpresa adjudikaziodunak ezingo du proposatu jarduketarik (planteamendu orokor edo partziala, modulu museografikoa, elementu museografiko osagarria, bisitarientzako ibilbidea eta abar), eraikinak eta haren azpiegiturek obrak amaitu ondoren ematen dituzten zerbitzuak gainditzen badituzte. Hau da, enpresa adjudikaziodunak ezingo du proposatu *Euskal Museoaren* egoitza den eraikin berrituak bere gain hartu ezin duen ezer.

4. BBMk eraikiko du zein den *Euskal Museoaren* eremuen banaketa funtzionala, BBMk egin eta onartutako Plan museologikoaren IBPren arabera; besteak beste bulego, erabilera anitzeko areto -bilerak eta antzeko jarduerak egiteko-, komun eta bildumetarako biltegietarako direnak, erabilera publikoko eta barneko erabilerarako solairuen arteko sarbide-sistema mekanikoak barne. Horietatik guztietatik, BBMren azken onarpen eta ikuskapenean, enpresa adjudikaziodunak haren diseinua bere gain hartuko du, gauzatzeko eta muntatzeko. Xede horretarako, BBMk egokitzat jotzen dituen enpresa edo profesionalen aholkularitza edota lankidetza bilatu eta kontratatu ahalko du.

5. 5. Halaber, BBMren azken onarpen eta ikuskapenean, enpresa adjudikaziodunak diseinua bere gain hartuko du erabiltzaile eta bisitarien harrera-lekua gauzatzeko eta muntatzeko (komertzializazio-eremua barne hartu gabe). Horien artean daude, esaterako: atseden eta eserleku eremua, arropategia, apalak eta erakusmahaiak liburuxka eta argitalpenetarako, publikoaren arretarako erakusmahaia, bulegoko

mahaiak, modulu museografikoak eta bildumaren jatorrizko piezak erakusteko beira-arasak, bideoak, liburuetarako altzariak eta eremuaren antolaketa osoa, girotzea eta harreraren dekorazioa.

6. 6. Halaber, BBMk ikuskatu eta onartu ondoren, enpresa adjudikaziodunak ezagutza-eremua (gela didaktikoak, liburutegi artxiboak eta laborategi sortzaileak osatutakoa) eta denboraldi baterako erakusketak antolatzeko areto nagusia eta bigarren mailakoa gauzatzeko eta muntatzeko diseinua bere gain hartuko du.

7. 1. Bestalde, BBMk ikuskatu eta onartu ondoren, enpresa adjudikaziodunak oinarrizko instalazioen, bildumatik bisita daitekeen biltegiaren eta gastronomia- eta komertzializazio eremuen diseinua ere bere gain hartuko du. Azken eremu hori harrera-eremuan kokatuta dago.

8. 2. Proiektua idazteko faserako, zerbitzuaren plangintza bat aurkeztuko du enpresa adjudikaziodunak, zedarri partzialak, jarraipen-bilerak eta epe osoa betetzeko ildo kritikoak barne hartuko dituena. Era berean, taldea koordinatzeko tresnak definituko ditu. Horien artean, txosten eta akten garrantzia nabarmentzen da.

9. 3. Enpresa adjudikaziodunak, aurkeztutako eskaintzatik abiatuz, eta jabeak adierazten dizkion zuzenketak eta aldaketak eginez, aurreproiektu bat aurkeztu beharko du. Aurreproiektu horrek, adierazitako eskaera funtzional guztiei erantzun beharko die, eta ekonomia zein arau mailan bideragarria izan beharko du. Aukera bat baino gehiago eman baditzake, enpresa adjudikaziodunak haietako bakoitzaren nahikoa deskribapena eman beharko dio BBMri (planoak eta irudiak, beharrezkoak diren infografiak barne), dagokion balorazio ekonomikoarekin eta epearen balorazioarekin. Horrez gain, kasu bakoitzean garrantzitsuak diren ondorioen berri ere emango du.

10. Hori guztia dagokion **Proiektu arkitektonikoan** jaso beharko da.
BBMk *oinarrizko proiektu* bat aurkeztea eskatuko dio enpresa adjudikaziodunari, aurreproiektuan proposatutako diseinu-prozesuari jarraitutasuna emateko, oinplanoko banaketa amaitu arte. Horrela, diziplina guztiak garatu eta aurretiko balioespena egingo du, proiektuaren garapen-mailari egokitutakoa, plangintza orokorra, aurrekontua eta kontingentziak zehaztuz. Hortik abiatuz, enpresa adjudikaziodunak Arkitektoen Elkargo Ofizialak **ikus-onetsitako oinarrizko proiektu** bat emango dio BBMri, onar dezan. Proiektu horretan, memoria, planoak eta aurrekontuaren balioespena (kapituluka) barne hartuko dira, Udalarekin eta beste erakunde ofizial batzuekin obra-lizentziaren eskaera kudeatzeko nahikoa izango dena. Halaber, enpresa adjudikaziodunak izapide horiek (besteak beste, laguntza teknikoa hirigintza-lizentziagatiko udal tasak ordaintzeko, eskaera udalean aurkeztea, bisitak eta udalaren errekerimenduei erantzutea) bere gain hartuko ditu, eta lizentzia behin emanda, BBMri emango dio.

11. Ikus-onetsitako proiektuan oinarrituz, Arkitektoen Elkargo Ofizialak **ikus-onetsitako egikaritze-proiektu** bat egingo du enpresa adjudikaziodunak, BBMk aztertu eta onar dezan. Proiektu hori nahikoa izango da geroagoko obra kontratatzeko eskaintzak eskatzeko. Proiektu horrek barne hartuko ditu memoria, planoak, kalitatea kontrolatzeko plana, segurtasun eta osasun azterlana, hondakinak kudeatzeko plana,

plangintza xehatua, zehazpenak, neurketak eta Arkitekturako aurrekontuak eta kontingentziak, egitura eta instalazioak (haien artean barne hartuko dira elektrizitatea, aireztapena eta erauzketa, klimatizazioa, iturgintza eta saneamendua, sute kontrako babesa, segurtasun instalazioak, telekomunikazio azpiegitura eta instalazioen kudeaketa zentralizatuko sistemak). Bestalde, obraren lizitaziorako oinarritzat hartzeko plangintza xehatua barne hartuko du.

12. 6. Egikaritze-proiektua dagozkion obren geroagoko lizitaziorako oinarri gisa erabiliko da, eta egoki definituta egon beharko du lizitazio hori egin ahal izateko. Hori horrela, egikaritze-proiektu horren aurrekontua unitateko prezioetan adierazteaz gain, baliabide material eta pertsonalak bereizi ere egin beharko dira. Informazio hori enpresa eraikitzaileei emango zaie, informazio horretan oinarrituz beren eskaintza gara dezaten. Proiektua, aipatutako esparru ekonomikoaren barruan jaso beharko da.

13. 7. Enpresa adjudikaziodunak agiri horietako bakoitzaren (ikus-onetsitako oinarrizko proiektua eta ikus-onetsitako egikaritze-proiektua) sei ale (hiru euskaraz eta hiru gaztelaniaz) entregatuko dizkio BBMri, paper opakuan (planoa gutxienez DIN-A3n, eskalan, nahikoa xehetasunekin), euskarri informatikoan, PDFn, CD formatuan eta euskarri informatikoan DWGn (planoak), Word (idatzizko dokumentazioa) eta BC3 trukatze formatu estandarrean edo Excel-en (neurketak eta aurrekontua) CD formatuan. Proiektu arkitektonikoak nahikoa argi aipatuko du BBMk idatziz oniritzia emanda eta jasota, proiektu horren jabea BBM izango dela. Halaber, enpresa esleipendunak, proiektu arkitektonikorako egindako diseinu grafiko osoaren jatorrizko agiri digital edo nagusia eman beharko dio BBMri, baita agiri nagusia egiteko erabilitako programa informatikoa ere. BBMk agiri nagusi horretan jasotzen den informazio eta elementu grafiko guztiak erabili ahalko ditu etorkizunean materialen argitalpen berriak edo kultura- edo hedatze-jarduerak egiteko.

14. 8. Proiektua idazteko fasean, beharrezko koordinazioa garatu beharko dute beste administrazio, enpresa hornitzaile edo bestelakoekin. Bestalde, obrak dagozkion faseetan gauzatzeko eskatzen diren agiriak idatzi beharko ditu.

15. 9. Egikaritze-proiektuak eraitsi edo kendu behar denaren eraispen-proiektua ere jaso beharko du, eta hondakinen eta elementu kutsatuen tratamenduen inguruan beharrezkoak diren izapideei arreta jarriko die.

16. 10. Egikaritze-proiektuarekin batera, dagokion jarduera-proiektua ere aurkeztu beharko da, eta obra-fasean garatzen diren aldaketekin osatu beharko da.

17. Halaber, BBMk, obraren **zuzendaritza fakultatiboa** ezartzeko (obra-zuzendaritza, obrako lanen zuzendaritza eta segurtasun eta osasun koordinazioa), obrako lanak kontratatu aurretik, egikaritza-proiektuaren agirietan oinarrituz, aurrekontu zehatza presta dezala eskatuko dio kontratu honen enpresa adjudikaziodunari. Horrez gain, obrak kontratatzeko agiriak idazten, jasotako eskaintzak aztertzen eta azterketa zehatzak prestatzen, eskaintzei buruzko txostenak egiten eta, kontratazio-fasean, kontratu, klausula eta baldintza ereduen inguruan aholkatzen *laguntzea* ere eskatuko zaio.

18. Behin obrako lanak kontratatuta, zuzendaritza fakultatiboari dagokionez, honako hauek emango dizkio enpresa adjudikaziodunak BBMri:
    - Aholkularitza teknikoa eta bileretara joatea kontratistekin.

- Obraren zuzendaritza fakultatibo ofiziala kontratu honen enpresa adjudikaziodunaren eskutik, proiektuaren egile gisa, parte hartzen duten ingeniaritza-enpresetako teknikariekin batera, koordinatuta, obra garatzean sor daitezkeen arazoak ebazteko helburuarekin.
- Proiektu zuzendariak astean behin obraren inguruko bilerara joatea.

- Krokisak eta xehetasunak egitea, "Obra-jarraibideak" gisa, zenbaki korrelatiboekin, proiektuaren agirietan sartzeko, eta obra garatzen den bitartean beharrezkoak diren obra-aginduak egitea, idatziz.
- Lantegiko planoak aztertu eta onartzea (*shop-drawings*).
- Kontratistek aurkeztutako materialen laginak aldez aurretik onartzea, aurretiko hautaketa bat eginez, BBMk behin betiko onar ditzan.
- Proiektu arkitektonikoaren agiri ofizialak kontrolatzea, aurkibide bat mantenduz, geroago bestelako planoak, lantegiko planoak eta obra-jarraibideak eginez, oinplanoen eta instalazioen *as built* planoekin batera jatorrizko proiektu horretara gehitzeko helburuarekin.
- • Obrako lanak gauzatzeko zuzendaritza. Barne hartzen ditu zuinketak egiaztatzea, materialak eta eraikuntzako eta instalazioetako elementuen antolaketa zuzena. Horretarako, proiektuan parte hartzen duten ingeniaritza-enpresen lankidetza ere izango da.
- Segurtasun eta osasun koordinazioa.
- Hondakinak kudeatzeko programaren jarraipena.
- Obra-bisitak babestu eta kudeatzea, dagozkion deialdiekin, eta jarraipen-aktak ere idatziz.
- Plangintzaren jarraipena, eta bezeroak une bakoitzean jakinarazitako beharrekin koordinatzea.
- Obran eraikuntza produktuak jasotzen direla egiaztatzea, beharrezkoak diren saiakuntzak eta probak egitea aginduz, eta obraren kalitate-kontrola betetzen dela kontrolatuz.
- Kontratisten hileko ziurtagiriak onartzea.
- Kontratistek egin ditzaketen erreklamazio ekonomikoak eta horien jatorriari buruzko informazioa aztertzea.
- • BBMri obraren behin-behineko harreran laguntzea, diziplinen 'errematean zerrendak' eginez, eta betetzen direla kontrolatuz.
- Arkitektura oinplanoen *as built* planoak eta jasotako sabaien oinplanoenak egitea.
- Instalatzaileek egindako *as built* planoak aztertzea eta onartzea.
- Instalatzaileek egingo dituzten probak kontrolatzea, instalatzaileei emango zaizkien proben protokoloan zehaztutakoarekin bat.
- Instalazioak abian jartzeko prozesuan laguntzea BBMri, obra-zuzendaritzan parte hartzen duten ingeniarien eskutik.
- Eraikinaren liburu osoaren informazioa idaztea eta biltzea, indarreko araudiaren arabera; baita kalitate-kontrolari buruzko informazioa ere. Agiri hori, paperez eta euskarri digitalean emango dio BBMri.
- Obra-bukaerako ziurtagiria.

19. Enpresa adjudikaziodunak, obrak eta instalazioak zuzen legeztatzeko beharrezkoak diren agiri eta izapide guztiak, eta enpresa hornitzaileen altak kudeatu beharko ditu. Horrela, guztiak abian jartzen direla bermatzeaz gain, eraikinaren erabilera baliozkotu da.

20. Obrak amaitutakoan, laguntza teknikoko zerbitzua eman beharko du enpresa adjudikaziodunak, kontratistaren edo kontratisten bermealdian, bermealdi hori amaitu arte. Gutxienez, hamabost egunez egin jarraipen-bisita egingo du, eta enpresa adjudikaziodunak bisita

bakoitzaren akta egin beharko du. Bestalde, bermealdi horretan gertatzen diren gorabeheren jarraipena egin beharko du. Beharrezkoa bada, gorabehera horien txostenak egin beharko ditu. Aurkitutako akatsen txostenak idaztea, gorabeheraren deskribapen grafikoa eginez, datuak aztertuz, arrazoiak bilatuz eta neurri zuzentzaileak definituz, zenbat neurri hartu diren adieraziz, eta beharrezkoak diren xehetasun grafikoak emanez.

D ATALA: **MUSEOGRAFIA** LANETARAKO BERARIAZKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1. Enpresa adjudikaziodunak **Proiektu museografiko** osoa egin eta idatzi beharko du. Hau da, lehiaketan aurkeztutako proposamenarekin jarraitu beharko du, proiektu edo agiri museografiko bateratu, oso, integral eta koherentetzat hartzeko geratzen den guztia osatuz. Hurrengo gertaerei dagokien xehetasun-mailarekin egingo du, Proiektu arkitektonikorako izendatutako gertaerekin bat etorriz: aurreproiektua, oinarrizko proiektua eta egikaritze-proiektua (jarduera-plan bat ere barne hartuz).

2. Enpresa adjudikaziodunak zerbitzuaren plangintza bat aurkeztuko du, eta beharrezkoa den **koordinazioa** garatu beharko du hirugarrenekin (enpresa hornitzaileak eta abar), fase desberdinetan lanak gauzatzeko.

3. **Egikaritze-proiektua** dagozkion lanen geroko lizitaziorako erabiliko da, eta lizitazio horretara aurkezteko egoki definituta egon beharko du. Proiektua, aipatutako esparru ekonomikoaren barruan jaso beharko da.

4. Halaber, BBMk, **lan museografikoei dagokien zuzendaritza fakultatiboa** ezartzeko, lan horien gauzatzea kontratatu aurretik, aurrekontu zehatza prestatzeaz eskatuko dio enpresa adjudikaziodunari, egikaritze-proiektuaren agirietan oinarrituz. Bestalde, BBMri laguntzea ere eskatu dio, lanen kontratazio-agiria idazten eta aholkatzen kontratazio-fasean.

5. Lan museografikoen gauzatzea kontratatuta, zuzendaritza fakultatiboari dagokionez, **aholkularitza tekniko** egokia emango dio enpresa adjudikaziodunak BBMri, ongi erabil dezan (besteak beste, lanen zuzendaritza ofiziala, bilerak, berrikusteak, sortutako agirien kudeaketa, egindako irtenbide museografikoak egiaztatzea eta abian jartzen laguntzea).

6. Enpresa adjudikaziodunak, egindako irtenbide museografikoak ongi ibiltzeko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egingo ditu. Horrela, haiek guztiak martxan jartzen direla bermatuko da. Gero, laguntza teknikoko zerbitzua eman beharko du enpresa adjudikaziodunak, bermealdiak iraun bitartean.

7. Enpresa adjudikaziodunak zehaztasun osoz egin eta diseinu beharko du *Euskal Museoak* bere egoitzan izango duen erakusketa erdi-iraunkorra. Xede horretarako, enpresa adjudikaziodunak, BBMk erakusketa erdi-iraunkorrari buruz egin, idatzi eta onartutako Plan

museologikoaren IBPren atalean ezarritakora egokituko du bere proposamena. Plan horretan, erakusketa iraunkorrean bildumako jatorrizko zer pieza edo objektu erakutsiko diren zehaztuko da. Enpresa adjudikaziodunak erakusketa erdi-iraunkorrerako eremuak, arlo bakoitzaren atalak, modulu museografikoak eta modulu museografiko bakoitzaren altzari museografikoak (euskarri museografikoa, beira-arasak eta abar) proiektatu eta diseinatu beharko ditu; hau da, enpresa adjudikaziodunak banan-banan proiektatu eta diseinatuko ditu erakusketa erdi-iraunkorrean ikusgai izango diren elementu guztiak, *interpretazio instalazio bereziak* izan ezik (berariaz zehaztuta daude Proiektu museologikoaren IBPn; horien artean, *Zure Aretz Bizia* mihise aretoa. Horrela, batzuk adieraztearren, enpresa adjudikaziodunak bideo bakoitzaren estilo grafikoa eta egitura, ikus-entzunezko euskarriak, beira-arasak, ingurune birtualak, beira-arasak eta pantailak lotuko dituzten euskarri museografikoak, aplikazio interkatiboak, elkarrizketa birtualak ikusteko edota entzuteko formatu eta euskarriak, joko informatikoak, dioramen ekoizpena, erakusketa erdi-iraunkorraren bideo-aretoak, erakusketa erdi-iraunkorraren panel interkatiboen eremua, diseinu grafikoa eta egitura eta erakusketa erdi-iraunkorrerako eremuaren girotzea eta dekorazioa proiektatu eta diseinatu beharko du. Horrez gain, enpresa adjudikaziodunak erakusketa erdi-iraunkorraren eremu antolaketa proiektatu, diseinatu eta definitu beharko du. Horrenbestez, erakusketa erdi-iraunkorra osatuko duten elementu guztien kokapen zehatza adierazi beharko du, atseden eta eserleku eremuak barne, Plan museologikoarekin bat datozen irizpideei jarraituz. Aurrekoarekin lotuta, enpresa adjudikaziodunak Plan horri jarraituko dio erakusketa erdi-iraunkorraren ibilbide nagusia eta bigarren mailako ibilbideak proposatzeko, finkatzeko eta justifikatzeko.

8. Museoaren erakusketa erdi-iraunkorra diseinatzeko eta proiektatzeko orduan, Euskal Museoaren Plan Museologikoan garatutako Aretz bizia kontzeptua egoki islatzen dela kontuan hartuko du enpresa adjudikaziodunak. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu museografikoak nola lortuko duen zehaztasunez azaldu beharko du, eta BBMk egoki irizten badio, aldatzeko aukera ere jasoko du.

9. Halaber, erakusketa erdi-iraunkorrak proiektu museografikoan irakurtzeko bi maila izango dituela kontuan hartuko du. Gaia eta mezua berdinak izango dira bietan. Bi mailen arteko desberdintasun bakarra istorioa izango da. BBMk egin, idatzi eta onartutako Plan museologikoak jasotzen duen moduan, euskal kulturaren, bere erroen, balioen eta proiekzio sortzailearen gaia eta antzinako zibilizazio-eredu bizi gisa duen erreferentzia aurkeztu eta jorratuko dira bietan (bisitariari iraganaren eta orainaren artean dagoen desberdintasuna erakutsiz), eta harekin lotutako mezua eraikinaren eta museoaren beraren historiaren kontaketa izango da, ehun urteko kultura-erakunde gisa. Dena den, irakurketa-maila bakoitzean kontatutako istorioaren hedadura eta sakontasun-maila ez da bera izango. Lehen mailako irakurketa: terminologia erraza eta esaldi laburrak (titularrak izango balira bezala). Familiei zuzenduta egongo da mezua, eta gaian aditua ez den 13 urtetik gorako edonork ulertu beharko du. Irakurketa-maila honek, erakusketa edo haren atal jakin bat azkar ikusi nahi duten helduentzat egokia izan beharko du,

baita hari gisa erabiltzeko ere, heldu batek gazteei erakusteko modukoa. Bigarren irakurketa-mailak, modu ulergarrian jorratutako gaien alderdi edo kontu desberdinetan sakontzeko aukera emango dio erabiltzaileari, dibulgazio zientifikoko maila batean. Zenbait kasutan, gainera, dibulgazio zientifikoko maila hori baino handiagoa izan ahalko da. Bi irakurketa mailak koherenteak izango dira beraien artean, noski, hau da, erabiltzaileak atal batetik bestera irakurketa-maila aldatu ahalko du, eta aldaketa horrekin, desberdintasunak hautemango ditu edukien sakontasun-mailan zein hedaduran. Hala ere, bi mailetako edukiek koherenteak izan beharko dute beraien artean. Ezin da kontraesanik egon. Erakusketaren lehen irakurketa-mailan, testuak eta ikus-entzunezkoak nagusiki agertuko dira. Bigarren irakurketa-maila bermatzeko, teknologia berriak ematen dituzten aukerez baliatuko dira. Halaber, teknologia berriak erabiliko dira, erabiltzaile zein bisitariek ikus-entzunezkoen hizkuntza aukeratu dezaten. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu museografikoak aurretik aipatutakoa zehazki nola egingo den azaldu beharko du.

10. Bi irakurketa-mailak testuz edo informazioz hornitzeko, egiaztatutako informazio teknikoko dosier bat eman beharko du enpresa adjudikaziodunak, Plan museologikoaren IBPn adierazitako publikoarentzako mezuei zentzua emateko balio dezan. Geroagoko ekoizpen-fasean testuak behin betiko idazteko balioko duen informazio tekniko hori gainbegiratu eta onartuko du BBMk.

11. Beira-arasek, euskarri museografikoek, modulu museografikoek, altzariek eta enpresa adjudikaziodunak diseinatu eta proiektatutako gainerako elementuek edukiak eta bilduma aldizka berritzeko aukera erraztu beharko dute, ahal den neurrian, eta *Euskal Museoaren* egoitzaren arkitektura eta dekorazio ezaugarriekin bat etorri beharko dute.

12. Diseinatutako eta proiektatutako espografiak, alde batetik, bere izaera abangoardista eta iraunkorra erakutsiko du, eta bestetik, bildumaren jatorrizko objektu eta elementuak nabarmenduko ditu. Horrenbestez, baliabide museografikoek ez dituzte ezkutatutako jatorrizko objektuak, ez eta bigarren plano batean utziko ere. Baliabide museografikoak eta argiztapena ez dira egongo arlo estetikoen mende; jatorrizko objektu eta piezen kontserbazioari eta segurtasunari batik erreparatuko diote, hobeto hauteman daitezen. BBMk arlo hori gainbegiratuko du, eta Plan museologikoaren IBPren plangintzari jarraitu beharko dio. Halaber, behar bereziak dituzten bisitariekin komunikazioa bermatzeko beharrezkoak diren baliabideak izango ditu erakusketa erdi-iraunkorrak. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu museografikoak aurretik aipatutakoa zehazki nola egingo den azaldu beharko du.

13. Enpresa adjudikaziodunak egindako proiektu museografikoak berariaz eta xehetasun osoz aipatuko ditu beira-arasak eta gainerako euskarri museografikoak, bereziki jatorrizko pieza, objektu edo elementuak hartuko dituzten beira-arasak, euskarri edo modulu museografikoak, bilduma gordetzeko artxiboko altzariak eta bisita daitekeen eremua barne hartu gabe. Horrenbestez, honako hauek deskribatu eta justifikatu beharko ditu proiektu museografikoak: elementuen materialak,

segurtasun baldintzak, egonkortasuna, argiztapena eta berezitasunak, tenperatura eta hezetasun baldintzak eta hezetasuna kontrolatzeko neurriak, irisgarritasunaren inguruko baldintzak eta berezitasunak, garbiketa-prozesu eraginkorrak eta abar.

14. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu museografikoak, oro har, *Euskal Museoaren* erakusketak pentsatu eta definitzean gaia eta sistematika konbinatuko direla kontuan hartuko du, betiere erabiltzaileari esperientzia atsegin eta atsegingarria emateko helburuarekin, BBMk onartutako Plan museologikoaren IBPn proposatzen den moduan. Komunikazio-jarduera gisa, gai baten ingurukoak izango dira, eta mezu bat edo batzuk bidaliko dira, istorio bat erabiliz, gaia eta mezuak irudikatu, adierazi edo ulertzeko. Bestalde, noizean behin bildumako objektuen unitate-multzoak ere erabiliko dira.

15. Publikoari irekitako eremuetan eta sormenerako erakusketa erdi-iraunkorraren eremuan bereziki, bisitarien partaidetza eta jarrera aktiboa sustatu beharko da, komunikazio-ekintza norabide batekoa bakarrik izan ez dadin. Horren aldean, bisitariek, gazteenek eta gizarte-eragileek bereziki, museoak bidalitako mezuei erantzutea lortu beharko da. Enpresa adjudikaziodunaren proiektu museografikoak aurretik aipatutakoa zehazki nola egingo den azaldu beharko du, Plan museologikoaren IBPren arabera.

16. Museoan aurkeztutako bildumako jatorrizko objektu edo elementu guztiek idatzizko identifikazio-kartela izango dute, hau da, ez da aurkeztuko identifikatu gabeko inolako jatorrizko objektu edo elementurik.

17. Museoan erakutsitako elementu idatziak, oro har, eta erakusketenak bereziki (harrera-lekuan, erakusketa erdi-iraunkorrean eta gainerakoetan), lau hizkuntzatan agertuko dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Euskara lehenetsiko da, bai kokapenari, bai karaktereen tamainari dagokienez. Dena den, erakusketek beste hizkuntza batzuetan dagoen informazioa ere izan ahalko dute. Xede horretarako, museografia teknologia berriek emandako aukerez baliatuko da.

18. Enpresa adjudikaziodunak aretoen eta publikoari irekita eremuen (terrazaren egokitzea eta hobetzea barne, sormenerako erakusketa erdi-iraunkorraren eremuarekin estuki lotuta) eta gainerako eremu eta aretoen, korridoreen eta bigarren mailako eskailera, areto eta eremuen giropen eta dekorazio proiektua garatuko du. Bestalde, proiektu museografikoan barne hartuko du, oinarrizko neurri zehatz eta funtzionalak ere gehituz, *interpretazio instalazio bereziak* hartzeko (Plan museologikoaren PMIn zehaztuta dauden bezala).

19. Enpresa adjudikaziodunak museo osoaren argiztapen-proiektu integrala egin beharko du, eta museoko harrera-eremuarena eta erakusketa erdi-iraunkorrarena bereziki. Eta, oro har, publikoari irekitako eremu guztiena. Horrela, proiektu museografikoan barne hartuko du, Plan museologikoaren IBPn zehaztutako orientazioari ere jarraituz.

20. Enpresa adjudikaziodunak *Euskal Museoaren* seinaletika funtzional integrala diseinatu eta proiektu museografikoan barne hartu beharko du. Enpresa adjudikaziodunak, seinaletika integrala egin eta diseinatu beharko du, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta braillez. Dena den, euskarari lehentasuna emango dio.

21. Enpresa adjudikaziodunak, kanpoko seinaleak egin eta diseinatu beharko ditu, euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta braillez. Dena den, euskarari lehentasuna emango dio.

22. Sute kasu baten aurreko oinarrizko segurtasun agiria eta erabilera segurtasunaren eta oinarrizko segurtasun agiria bilduko dituzten dokumentuak idatziko ditu enpresa adjudikazioak museoaren egoitzan, betiere eraikin osoa eta eraikin osorako direla kontuan hartuz. Horrela, proiektu museografikoan barne hartuko ditu.

23. Enpresa adjudikaziodunak proiektu museografikoan barne hartzeko banakako elementu guztien ekoizpen, garraio eta muntaketaren aurrekontu zehatz eta banakatua aurkeztuko du proiektu museografikoan. Hau da, proiektu museografikoan barne hartutako elementu guztien aurrekontu zehaztua jaso beharko du proiektu museografikoan (besteak beste altzariak, beira-arasa bakoitza, modulu museografiko eta euskarri museografiko bakoitza, beira-arasa bakoitza, seinale bakoitza, informazio-panel bakoitza, argiztapena, giropenaren alderdi bakoitza, diorama bakoitza, ikus-entzunezko bakoitza). Horrenbestez, proiektu museografiko-arkitektonikoaren aurrekontuak ahal den banakapen-mailarik handiena izango du.

24. Enpresa adjudikaziodunak museoan publikoari irekitako eremu nagusietarako (erakusketa erdi-iraunkorra) proiektatu eta diseinatutako museografiaren batez besteko kostua 2.000 eta 2.500 € artekoa izango da metro karratuko. Bestalde, eskailera, korridore eta bigarren kategoriako gainerako areto eta eremuetarako museografiaren batez besteko kostua 900 eta 1.300 € artekoa izango da metro karratuko.

25. Enpresa adjudikaziodunak bi hizkuntzatan egin eta idatziko du proiektu museografikoa, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrenbestez, enpresa adjudikaziodunak proiektu museografikoaren bi bertsio egingo ditu: bat, euskaraz, bestea, gaztelaniaz. Edukiak, proposamenak, irtenbideak eta proposamenak berdin-berdinak izango dira.

26. Enpresa adjudikaziodunak behar bezala egituratuta, maketatuta eta prestatuta emango dio agiria (testua, planoak, krokisak, argazkiak, simulazioak, aurrekontuak eta abar) BBMri, paperean eta euskarri digitalean. Proiektu museografikoak nahikoa argi aipatuko du BBMk idatziz oniritzia emanda eta jasota, proiektu horren jabea BBM izango dela. Enpresa adjudikaziodunak sei ale emango dizkio aldi berean BBMri, CD formatuan (hiru euskaraz, eta beste hiru gaztelaniaz). Horrez gain, beste sei ale entregatuko ditu paperez (hiru euskaraz, eta hiru gaztelaniaz). Halaber, enpresa esleipendunak, proiektu museografikorako egindako diseinu grafiko osoaren jatorrizko agiri digital edo nagusia eman beharko dio BBMri, baita agiri nagusia egiteko erabilitako programa informatikoa ere. BBMk agiri nagusi horretan jasotzen den informazio eta elementu grafiko guztiak erabili ahalko ditu etorkizunean materialen argitalpen berriak edo kultura- edo hedatze-jarduerak egiteko, edo museoaren web-orria berriro diseinatzeko.

E ATALA: AURKEZTEKO AURREPROIEKTU ARKITEKTONIKO ETA MUSEOGRAFIKOAREN **BALDINTZAK**

1. Enpresak *Euskal Museoaren* egoitzaren aurreproiektu museografiko eta arkitektoniko bat egin, idatzi eta aurkeztu beharko du. Hor, proiektu arkitektoniko eta museografiko guztiaren plangintza jaso eta justifikatu beharko du, baita haren kapitulu zehatzak ere.

2. Aurreproiektu arkitektonikoari dagokionez, hauxe proposatu beharko du: beharrak definitzea (beharren programa, funtzionamendu murrizketak

eta epeak, inbertsioaren helburuak); aurretiko antolaketa eta irudiak aurkeztea; diseinu-prozesua definitzea, oinplanoko antolaketa onartu arte; eraikinen bolumetria eta azken irudia; multzoaren oinplano orokorraren trazadura (1:500), maila guztien oinplanoak (1:200) eta altxaera eta sekzio nagusiak (1:200).

3. Aurreproiektu arkitektonikoak, hala badagokio, jasotze topografiko eta geoktenikorako laguntzen planteamendua barne hartu beharko du. Bestalde, eraikinen gaur egungo egoerari buruzko txostena idatziko du, instalazioena barne.

4. Aurreproiektu museografikoari dagokionez, enpresak zehaztasunik handienarekin proiektatu eta diseinatu beharko ditu museoko eremu guztiak, proiektu arkitektonikoa kontuan hartuz, BBMk idatzi eta onartutako Plan museologikoaren PMIren atalean ezarritakoa betez. Halaber, dokumentu honetan ezarritako baldintza tekniko orokor eta zehatzak kontuan hartuko ditu. Horrekin batera, museoaren ibilbide nagusia eta bigarren mailakoak definitu eta justifikatu beharko ditu.

5. Aurreproiektu museografikoan museoaren estilo espazial eta grafikoa definitu eta justifikatu beharko du. Geroago, proiektu museografiko osoan garatuko da. Horrez gain, estilo hori azaldu eta irudiztatu beharko du, adibideen bidez; museoan erabiliko den kartel eredu normalizatua diseinatu, bildumetako pieza edo elementuak identifikatzeko, eta museoaren informazio-panel normalizatuak (panel laukizuzen horizontala, panel laukizuzen bertikala eta panel karratua).

6. Aurreproiektu museografiko-arkitektonikoan, egokitzapen, ekoizpen, garraio eta muntaketa lanen aurrekontu zehatz eta banakatua aurkeztu beharko du enpresak.

7. Aurreko puntuetan planoetan eta marrazkietan aipatutako guztia aurkeztuko du enpresak. Bestalde, egokitzat hartzen dituen espazio, elementu, banaketa espazial eta ibilbideen plano eta grafikoak egingo ditu.

8. Enpresak bi hizkuntzatan egin eta idatziko du aurreproiektu museografiko-arkitektonikoa, euskaraz eta gaztelaniaz. Horrenbestez, enpresak aurreproiektu museografiko-arkitektonikoaren bi bertsio egingo ditu: bat, euskaraz, bestea, gaztelaniaz. Edukiak, proposamenak, irtenbideak eta proposamenak berdin-berdinak izango dira.

9. Enpresak behar bezala egituratuta, maketatuta eta prestatuta emango dio aurreproiektu museografiko-arkitektonikoaren agiria (testua, planoak, krokisak, argazkiak, simulazioak, aurrekontuak eta abar) BBMri, paperean eta euskarri digitalean. Zehazkiago, enpresak agiri horren bi bertsio egin beharko ditu: bat, euskaraz; bestea, gaztelaniaz: bat, euskaraz; bestea, gaztelaniaz. Enpresak bi bertsioen bi kopia emango dizkio BBMri, paperez, aldi berean, eta beste bi euskarri informatikoan (CDz).

10. Kontratu honetan jasotzen diren lanak entregatzeko epeak bete beharko ditu enpresak. Epe horiek gehienekoak izango dira, eta ezingo dira luzatu. Halaber, kontratu honen xede diren lanek, ezarritako muga ekonomikoa

errespetatu beharko dute. Hori gehienekoa ere izango da, eta ezingo da gainditu.

G ATALA: EZARRITAKO LANAK EGITEKO **EPEAK**

1. Baldintza teknikoen agiri honen Proiektu museografiko-arkitektonikoaren aurreproiektua aurkezteko gehieneko epea 2 hilekoa izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta ezingo da luzatu.
   a. 1. zedarria. Aurreproiektu arkitektonikoa entregatzea, hilabete eta erdi, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.
   b. 2. zedarria. Aurreproiektu museografikoa entregatzea, 2 hilabete, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

2. Baldintza teknikoen agiri honen C eta D ATALETAN (ARKITEKTURA EGOKITZAPEN PROIEKTUA ETA MUSEOGRAFIA) jasotzen diren lanak eta erantzukizunak burutzeko gehieneko epea 4 hilekoa izango da, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta BBMk egokitzat jotzen dituen dokumentazioa, informazioa eta irizpideak aurkeztu eta gero. Epe hori ezingo da luzatu.
   a. 3. zedarria. Oinarrizko proiektu arkitektoniko eta museografikoa entregatzea, 3 hilabete, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

   b. 4. zedarria. Egikaritze-proiektu arkitektoniko eta museografikoa entregatzea, 4 hilabete, kontratua sinatzen denetik zenbatzen hasita.

H ATALA: ORDAINSARIAK **ORDAINTZEKO MODUA**

1. "Oinarrizko proiektua eta egikaritze-proiektua idazteari" dagozkion ordainsariak BBMk zedarri bakoitzaren dokumentu osoak entregatu eta onetsi ondoren ordainduko dira:
   a. 1. zedarria amaitutakoan, "Oinarrizko eta egikaritza-proiektua idazteko" zenbatekoaren % 5, aurreproiektu arkitektonikoa entregatu eta BBMk onartu ondoren.
   b. 2. zedarria amaitutakoan, "Oinarrizko eta egikaritza-proiektua idazteko" zenbatekoaren % 5, aurreproiektu museografikoa entregatu eta BBMk onartu ondoren.
   c. 3. zedarria amaitutakoan, "Oinarrizko eta egikaritza-proiektua idazteko" zenbatekoaren % 25, oinarrizko proiektu arkitektoniko eta museografikoa entregatu eta BBMk onartu ondoren.
   Agiriek osoak izateaz gain, ikus-onetsita ere egon beharko dute, obrak gauzatzeko lizentzia eskuratzeko beharrezkoak diren agiri guztiekin. Bestalde, erakunde guztiek aldeko txostena egin beharko dute.
   d. 4. zedarria amaitutakoan, "Oinarrizko eta egikaritza-proiektua idazteko" zenbatekoaren % 65, proiektu arkitektoniko eta museografikoa entregatu eta BBMk onartu ondoren. Agiriek osoak izateaz gain, ikus-onetsita ere egon beharko dute, obrak gauzatzeko lizentzia eskuratzeko beharrezkoak diren agiri guztiekin. Bestalde, erakunde guztiek aldeko txostena egin beharko dute.

2. "Segurtasun eta osasun azterketari" eta "Maketa eta infografiei" dagozkien ordainsariak, 4. zedarria amaitutakoan agiri horiek entregatu eta BBMk haiek onartu eta gero ordainduko dira.

3. "Obrako zuzendaritza eta museografia", "Obrako lanen zuzendaritza eta museografia", "Instalazioak gauzatzearen zuzendaritza" eta "Segurtasun eta osasun koordinazioari" dagozkien ordainsariak hilero ordainduko dira, obrak egiten diren hiletan banatuz zenbatekoa. Azken hileko kuota obra-bukaerako agiria eta jarduketaren amaiera izapidetzeko eta eskumeneko eragileen aurrean legeztatzeko gainerako dokumentazioa entregatu ondoren ordainduko da. Gehiegizko neurketa dela eta obra-likidaziorik ez balego, haien zuzendaritzak ez du ordainsaririk sortuko. Era berean, obraren epea luzatzeak ez du ordainsaririk sortuko.
4. "Jarduera proiektua, eraikinaren liburua eta obra-bukaerako dokumentazioari" dagozkion ordainsariak honela ordainduko dira:
    a. 4. zedarria entregatutakoan, egikaritze-proiektuarekin, "Jarduera-proiektua, eraikinaren liburua eta obra-bukaerako dokumentazioaren" zenbatekoaren % 60a ordaintzea.
    b. Lizentziak eskuratzea eta eraikina martxan jartzea, "Jarduera-proiektua, eraikinaren liburua eta obra-bukaerako dokumentazioaren" zenbatekoaren % 20aren ordainketa, eta Jarduerari eta obra-amaierako agiri guztiak entregatu eta BBMk haiek onartu ondoren.
    c. Kontratistaren bermealdia amaitutakoan, "Jarduera-programa, eraikinaren liburua eta obra-bukaerako dokumentazioaren" zenbatekoaren % 20a, eta bermealdiko agiri guztiak entregatu eta BBMk haiek onartu ondoren.
5. "IBM sortzea eta jarraitzeari" dagozkion ordainsariak honela ordainduko dira:
    a. IBM eredua entregatzea Proiektuen idazketari buruzko 4. zedarrian, "IBM sortzea eta jarraitzearen" zenbatekoaren % 80a, eta fase horretan IBM ereduari dagozkion agiri guztiak entregatu eta BBMk haiek onartu eta gero.
    b. IBM eredu eguneratua entregatzea Obra-bukaerako dokumentazioan, "IBM sortzea eta jarraitzearen" zenbatekoaren % 20a, eta fase horretan IBM ereduari dagozkion agiri guztiak entregatu eta BBMk haiek onartu eta gero.

I ATALA: **KONFIDENTZIALTSUNA**

Kontratu honen enpresa adjudikaziodunak berariaz hitzemango du, kontratatutako zerbitzua gauzatzearen ondorioz ikusten duen edozein informazio hirugarren pertsonei ez diela zabaldu, igorri edo esango, kontratua indarrean dagoen bitartean, nahiz kontratua amaitu eta gero. Aipatutako informazio hori Bilbao Bizkaia Museoak erakundeari zein kontratuan jasotzen den proiektu edo lanari buruzkoa izango da.

Aurreko paragrafoan ezarritakoaz gain, Bilbao Bizkaia Museoak erakundearen edo kontratuaren xede den lanaren ondorioz eskuratzen duen bezeroei, antolaketa-prozedura eta -sistemei eta informatika-programei buruzko informazioa, edo beste edozein barne-informazio ezingo da ezein euskarri edo baliabideren bidez ere berregin, informazio hori kontratu honen xedea garatzeko nahitaezkoa bada salbu.

Kontratu hau ematean sortzen den lan guztiaren jabea Bilbao Bizkaia Museoak erakundea da.